

**NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA****3400**

286/1993 DEKRETUA, urriaren 7koa, maiatzaren 20ko 3/1993 Legeak onetsitako «Ekonomia eta Lanpostuak Sustatzeko Ez-ohizko Fondoari» buruzko neurriak basoen eta natur ingurunearen alorretan arautzen dituen Dekretua aldatzten duena.

Ekainaren 29ko 192/1993 Dekretuak «Euskal Autonomi Elkartean Ekonomia eta Lanpostuak Sustatzeko Ez-ohizko Fondo» arautu eta garatzeko neurriak biltzen ditu.

Dekretu horren aplikazioa dela eta, beharrezkotzat hartu da bere ataletan beste idazati bat sartzea, dekretuaren betearazpenean gertatzen izan diren eragozpenak gainditzeko xedeaz.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko urriaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**XEDATU DUT:**

*Atal bakarra.* – Maiatzaren 20ko 3/1993 Legeak onetsitako «Ekonomia eta Lanpostuak Sustatzeko Ez-ohizko Fondoari» buruzko neurriak basoen eta natur ingurunearen alorretan arautzen dituen ekainaren 29ko 192/1993 Dekretuaren 14. atalean e) idazati bat sartzen da, honako hau dioena:

«e) Aldibaterako kontratacioaren gutxienezko iraupena 6 hilabetekoa izan arren, eginda dauden kontratuak Langileen Estatutuko 49. ataleko 1, 2, 4, 5, 6, 8, 10, 11 eta 12. idazatietan jasotako kariengatik iraungitzen direnean edo frogaldian zehar -Langileen Estatutuko 14. atala- kontratu berriak egin ahal izango dira lanpostutsak betetzeko, nahiz eta kontratu horien gutxienezko iraupena 6 hilabetetik beherakoa izan.»

**ALDIBATERAKO XEDAPENA**

Aipaturiko fondoaren xede diren egoerek sortzen dituzten, fondoan jasotzen diren eta 1993ko uztailaren 9az geroztik gertatzen diren ondorio juridikoei aplikatuko zaie honako dekretu hau.

**AZKEN XEDAPENA**

Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko urriak 7.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA****3400**

DECRETO 286/1993, de 7 de octubre, de modificación del Decreto por el que se regulan las medidas del «Fondo extraordinario para la reactivación económica y el empleo», aprobado por Ley 3/1993 de 20 de mayo, en materia forestal y del medio natural.

El Decreto 192/1993, de 29 de junio, contiene las medidas que regulan y desarrollan el «Fondo extraordinario para la reactivación económica y el empleo en la Comunidad Autónoma del País Vasco».

Como consecuencia de la aplicación de este Decreto, se ha considerado necesario introducir un nuevo apartado dentro de su articulado a fin de resolver las dificultades que se estaban produciendo en su ejecución.

Por ello, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 7 de octubre de 1993,

**DISPONGO:**

*Artículo único.* – En el artículo 14 del Decreto 192/1993, de 29 de junio, por el que se regulan las medidas del «Fondo extraordinario para la reactivación económica y el empleo» aprobado por la Ley 3/1993, de 20 de mayo, en materia forestal y del medio natural, se introduce un nuevo apartado e) que tendrá la siguiente redacción:

«e) Aun siendo la duración mínima de la contratación temporal de 6 meses, cuando se extingan los contratos ya celebrados por las causas consignadas en el art. 49 apartados 1, 2, 4, 5, 6, 8, 10, 11 y 12 del Estatuto de los Trabajadores o durante el período de prueba, art. 14 del Estatuto de los Trabajadores, podrán celebrarse nuevos contratos para cubrir las vacantes, aun cuando la duración mínima de estos no alcance a ser de 6 meses».

**DISPOSICION TRANSITORIA**

El presente Decreto se aplicará a los efectos jurídicos derivados de las situaciones objeto del Fondo de Referencia contemplados en el mismo producidos desde el 9 de julio de 1993.

**DISPOSICION FINAL**

El presente Decreto entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 1993.

El Lehendakari,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,  
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.